

Bidasoa eskualdearen eta Sud Pays Basque-en mugaz bestaldeko lurralde arloko erantzukizun sozialeko RESOT proiektuak bere lehen enpresa-ekimenak jarri ditu martxan.

2014/04/28

RESOT proiektuak mugaz bestaldeko Bidasoa-Sud Pays Basque eskualdean agertzen diren erronka nagusiei erantzutea du helburu, balioa sortu eta hura interes-taldeen artean banatzea ahalbidetuko duten irizpide etikoak bereganatuz eta txertatuz. Ekimena 2012ko urtarrilean jarri zen martxan eta dagoeneko bere lehen emaitzak eman ditu abian jarri diren enpresa eta ekimenen bitartez.

RESOT MIK ikerketa-zentroak gidatzen du –Mondragon Unibertsitateko Enpresagintza Fakultateari atxikia– eta hainbat esparrutako bazkideak ditu: Administrazio Publikoak, enpresa eta unibertsitatea.

Eskualdearentzat garrantzitsuak izango diren agenteen sare bat sortuz eta elkarren artean definitutako balio batzuen babespean, une honetan sozialki arduratsua den lurraldea eraikitzen ari gara zenbait proiektu modu paraleloan abiaraziz. Landu beharreko gaiak askotarikoak dira, minusbaliotasunean oinarritutako ekintzailtza eta sormen artistikoaren sustapena, esate baterako.

Proiektuaren % 65 FEDER funts europarrekin finantzatu da, Espainia-Frantzia-Andorra 2007-2013 Lurralde Lankidetzeta Programaren bitartez. Lurralde Lankidetzeta Programa horren helburua Espainia-Frantzia-Andorra gune mugakidearen integrazio ekonomiko eta soziala sendotzea da. Haren laguntza mugaz bestaldeko ekonomia-, gizarte- eta ingurumen-jardueren garapenean oinarritzen da, horretarako lurralde-garapen iraunkoraren aldeko estrategia bateratuak erabiliz.

Proiektu aipagarri batzuk.

Irungo Udalak sustatuta, *Irun Factory* gunea sortu da artista gazteen ekintzailtza sustatu eta,aldi berean, ekimen sortzaileen bitartez tokiko enpresen lehiakortasuna sustatzeko. Horrela, fabrika arte garaikidera xedaturiko proiektuak sortu, prestatu, hedatu, ekoitzi eta kokatzeko gune bihurtu da. Lehen urtean zehar jarduera berritzaile ugari garatu dira, hala nola, erakusketak, workshop-ak, industria sortzaileen azoka eta abar.

Bestalde, *La Ciudad Educadora* proiektuak, Bidasoa Bizirik sozietatearen lankidetzarekin, irakaskuntzaren eta etengabeko ikaskuntzaren esparruko agenteen mobilizazioan lan egiten du lankidetzeta aktiboa sortu, eta horrela, ekintza berritzaileen bitartez, lurralde eleaniztuna eta mugaz bestaldeko izaera handiagoa izango duen lurraldea sustatzeko.

Hirugarrenik, eta energia-kontsumo arduratsua sustatzearren, tokiko agintari publikoen aldetik, Hondarribiko Udalaren aldetik, argiteria publiko berria instalatzeko proiektu bat abiarazi da Gibeleta eta Mendelu Berra auzoetan, eraginkortasun energetikoari eta argi-kutsadurari buruzko araudiaren ildo beretik jarraituz.

Era berean, ESTIA (RESOTen bazkidea) eta ETICOOP-ek antolatutako jarduera berritzaileen sortzaileei laguntzeko saioa azpimarratu behar dugu, hautatutako proiektuak sendotzeko helburuarekin. Proiektu guztiek ezaugarri komun batzuk dituzte, berrikuntza, lurraldea eta mugaz bestaldeko lankidetzeta, esaterako. Adibide gisa, Evolo ekimenak mugikortasun-irtenbideak eskaintzen ditu (hiri-salgaien entregak, txikizkako salmenta, bidaiarien garraioa, hiri barneko turismoa eta abar) triziklo elektrikoak erabiliz. Kakot ekimena, aldiz, lau artistek gidatzen dute (diseinatzailea, estilista, zine-zuzendaria eta artista), eta horiek aholkularitza eta laguntza eskaintzen diete museoek gisako guneetarako, ekitaldietarako edo jarduera teknikoetarako ekarpen



artistikoak egiteko ideia berritzaileak eskaintzen dituzten tokiko agintariei edo agente pribatuei.

Gainera, eta mugaz bestaldeko ikuspegia gailenduz, martxoaren 14an mugaren bi aldeetako gazteak elkartu zituen bilera bat egin zen Urruñan, horrela, horiek beren etxebizitza-egoerari eta etxebizitza eskuratzeko arazoei buruz eztabaidatu ahal izan zezaten. Hego Lapurdiko Hiriguneak sustatutako munta handiagoko proiektu baten esparruan txertatutako jardunaldi horretan diagnostiko baten emaitzak aurkeztu ziren eta gazteek mugaren bi aldeetako etxebizitza-eremua kudeatzen duten teknikariek egon ahal izan zuten, elkarrekin irtenbide berritzaileak garatu ahal izateko.

Azken adibide gisa, "Ekintzailtza eta minusbaliotasuna: pertsonan oinarrituta ekiten" proiektua azpimarratu behar dugu, MIK Mondragon Ikerketa Kudeaketan zentroak sustatua. Gaur egun bizi dugun krisi-testuinguruan ekintzailtzaaren ekarpena lanpostuak sortu eta lehiakortasuna hobetzeko mekanismo gisa nabarmendu da, baina paradoxikoa iruditu arren, ekiteko oztopoak ugari egin dira, bazterkeria-arriskuan dauden kolektiboen artean bereziki. Arazo horri irtenbide bat ematearren, pertsona minusbaliatuak ahalduntzeko apustua egin dugu, horiek ekiteko beharrezko tresnak izan ditzaten. Gureak Taldearen partaidetza aktiboarekin, proiektua hiru euskarri hauetan oinarritzen da: minusbaliotasunen bat duten pertsonen ahalduntzea (dituzten gaitasunez konbentzitzea); ahalegin ekintzailea sostengatuko duen ekosistema baten diseinua (mugaz bestaldeko lurraldeko agenteen arteko jarduketa, oinarritzeko egitura bat izateko); eta beste finantziario-bide batzuen identifikazioa. Laster, lehen emaitzak partekatu ahal izango ditugu.

Ekimen horiek, beste batzuen artean, lurraldea eraldatzeko eta erantzukizun sozialaren erabateko integrazioa lortzeko aurrerapenaren oinarria osatzen dute. Horrek edozein lurralderi eragin diezazkiokeen ondorio positiboak direla-eta, MIK metodologia bat sortzen ari da emandako aurrerapauso guztietan eta RESOT proiektuaren babespean gainditutako fase guztietan oinarrituta, betiere beste eskualde batzuetara esportatu ahal izango den eredu bat sortzeko helburuarekin.